

HEZKUNTZA IKUSKARITZA

KANPO EKIMENA BATZORDEA
COMISIÓN DE ACCIÓN EXTERIOR

2

MAIATZA 2018

AGURRA

¿BA DAKIZU...

...BIBESOIN ZER
DEN?...IKUSKARITZAREN
ERAGINA NEURTU
DAITEKEN?...ZER HERRITAN DEN
DERRIGORREZKO
IKASTETXEKO BARNE
-EBALUAZIOA?

...LAOS ZER DEN?

Lankide agurgarriok:

Espero dugu apirilaren hasieran bidali genizuen buletinaren lehen zenbakiak balio izango zizuela Kanpo Ekimeneko taldea egiten ari den jardueren berri izateko. Gogorazi nahi dizuet zenbaki horretan azaltzen genizkizuela, besteak beste, **SICI** elkarteak (dagoeneko bertako kide gara) abian dituen helburu eta jarduerak.

Ildo berari jarraituz, bigarren zenbaki honetan, alde batetik, ingelesez argitaratzen duten aldizkariaren zenbait eduki ezagutarazi nahi dizkizuegu, eta bestetik, 2017ko urrian, Maltan egin zen kanpo-ebaluazioari eta ikastetxeen autoebaluazioari buruzko biltzarrean, Europako hainbat ikuskaritzak eginiko ekarpenak aurkeztu nahi dizkizuegu.

EDUKIA:

1- AGURRA

2- SICI ELKARTEA-
REN AZKEN BULETI-
NAREN LABURPENA3- SICI ELKARTEA-
REN MALTAKO JAR-
DUNALDIARI BURUZ-
KO INFORMAZIOA4- IKUSKARIENTZA-
KO EKAINENKO PRES-
TAKUNTZA JARDUE-
RA

5- KONTAKTUA

Maltako biltzarreko parte-hartze horiei buruzko informazioa oso interesgarria iruditu zaigu, eta ondoko orrietan laburtzen saiatu gara. Halaber, uste dugu lehen eskutik entzun behar dela gure lankide europarrek ikastetxeen ebaluazioaren arloan eskaintzen diguten esperientzia. Hori dela eta, **ekainaren 7 eta 8rako prestakuntza-jardunaldia** antolatzen ari gara, eta bertan izango dira Europako ikuskaritzetako batzuk, erabiltzen dituzten ikuspegiaren, neurrien edo irizpideen berri emateko eta sortu dituzten prozedura eta materialak azaltzeko. Zenbaki honetan oso informazio laburra eskaintzen dizuegu. Prestakuntza-jardunaldia gauzatu baino lehen hirugarren alea jasoko duzue eta bertan informazio zehatzagoa aurkitu ahal izango duzue.

Jaso ezazue nire agurrik beroena.

Jose Angel Ayucar, Ikuskari nagusia.



2- SICI ELKARTEAREN AZKEN BULETINAREN LABURPENA

SICI elkartearen azken informazio-buletinean (2018ko otsaila), besteak beste, berri hauek aurki ditzakezue:



1. Biltzarra Bruselan bildu zen, 2018ko urtarrilaren 23an, zenbait gai jorratzeko asmoz. Hona hemen batzuk:

- **Koordinatzaile nazionalen sarea:** koordinatzaileak bildu ziren Maltan, koordinazioa eta kideen arteko ezagutzaren trukaketa optimizatzeko. Lan hori errazteko, OFSTEDeko (Britania handiko Ikuskaritza) Amy Finchek zuzendaritza guztientzako galdera-eredu bat prestatu zuen, bakoitzean gauzatzen diren jarduera garrantzitsuei eta zenbait alderdiei buruzko erantzunak jasotze aldera.
- SICI ERASMUS+en **BIBESOIN** proiektua: “garapen-arduradunak” (development officer) proiektua aurkeztu zuen koordinatzaile nazionalen bileran. “Ikuskaritza hobea gizarteratze hoberako” edo BIBESOIN (Better Inspection for BETter Social INclusion) izeneko proiektuak gizarteratzearen lehentasun europarra du ardatz.
- **2018ko Batzar Orokorra:** Serbian egingo da, azaroaren 15ean, ostiralean, eta 16an, ostegunean. Gai nagusia Ikuskaritzak hezkuntza politiketan duen eragina izango da.
- **Prestatzen ari diren ikuskari frantziarrak:** SICI elkarteak, 2018an, ikuskaritzaren eragina landuko du. ESENER-eko (École Supérieure de l'éducation nationale, de l'enseignement supérieur et de la recherche) hiru ikuskari frantziar, prestaketa-aldian daudenak, ari dira prestatzen Serbian aurkeztu eta SICI elkartearen web-orrian argitaratuko den txostena.

2. **Lan-taldee**i buruzko informazioa:

- **SICI elkartearen lantaldea, Pragan, 2017an:** “Eskola-ikuskaritzek eginiko eskola-emaizten ebaluazioa” izeneko SICI elkartearen tailerrean (Praga, 2017ko martxoaren 29 eta 30a) 20 herrialde baino gehiagoko 70 partaide bildu ziren. Txekiar Errepublikako Hezkuntza Ikuskaritzak, SICI elkartearen finantza-laguntzaz, antolatu zuen ekitaldi hori, eta Stanislav Stech Gobernu txekiarreko Hezkuntza ministroordeak eta Tomas Zatouklal ikuskariburuak eman zioten irekiera; aldi berean, azken horrek ongietorria eman zien partaide guztiei “Eskola-emaizten azterketa eta ebaluazio, Hezkuntza ikuskaritza txekiarraren jarduera gisa” izeneko solasaldira. Holandako Ikuskaritzako Bruno Vreeburg doktoreak Holandako jardunbideak aurkeztu zituen, gai honi buruz: “Holandako ikuskaritzak nola erabiltzen dituen hezkuntza-emaizten adierazleak. Zailtasunak eta erronka berriak sareko gizartean”. Marc Foucoult Frantziako Ikuskaritzako ikuskari nagusi eta nazioarteko gaietarako koordinatzaileak gai hau aurkeztu zuen: “Zein da Bigarren Hezkuntzako eskola baten balio erantsia?”. Azken txostengileek, Carol McDonald eta Sadie Cushley, Eskoziako ikuskariburuak, honako txostena aurkeztu zuten: “Eskoziako eskoletako ikuskapenetako lorpenen azterketak”. Programa zehatza nahi izanez gero, SICI elkartearen web-orrian ikus daiteke.

⇒ *Koordinatzaile nazionalen sarea*

⇒ *BIBESOIN proiektua*

⇒ *2018ko Batzar Orokorra*

⇒ *Prestatzen ari diren ikuskari frantziarrak*

⇒ *Lan-taldeak*

- **SICI elkartearen lantaldea, Vienan, 2017an:** “Eskola-kalitatearen kudeaketako rol eta erantzukizunak – Ikuspegi austriarra” gaiari buruzko tailerra. Austriako lehen tailerra 2017ko maiatzaren 17tik 19ra gauzatu zen, Vienako “Europahaus”en, 21 herrialdetako 60 partaide inguru bildu zirelarik. Topaketak, SQAren (Austriako Hezkuntza Orokorreko eskola-kalitatea) oinarrizko filosofiari buruzko informazio ezin hobea eskaintzearekin batera, oso hitzaldi interesgarriak eman zituen eskola-kalitateari eta Austriako lehen eta bigarren hezkuntzako eskolen testuinguruko irakaskuntza-ikaskuntzari buruz. Austriako sistemaren eta Europako hainbat sistemen arteko konparaketa oso interesgarria izan zen. Tailerrean ikerketetan oinarrituriko hezkuntzari, eskola-autonomiari, garapenari eta ebidentziei buruz ere jardun zuten.
- **SICI elkartearen lantaldea, Parisen, 2017an:** Ikuskapenek hezkuntza-politiketan duten eraginari buruzko tailerra (Paris, 2017ko azaroaren 13a eta 14a), 21 herrialdetako 61 partaide izan zituelarik. Ikuskapenak hezkuntza politiketan eragiteko modua izan zen tailerraren gai nagusia. Ikuskapenen eragina izan zen, 2018an ere, SICI elkartearen gaiaren abiapuntua. Tailerra antolatu zen hainbat herritako ikerlari, politiko eta bestelako eragileek elkarrekin hitz egin eta iritziak truka zitzaizten. Hona hemen bildu ziren zenbait ondorio:
 - ⇒ Ez dago metodo zientifiko edo irizpide objektibo bat ikuskaritzaren eragina neurtu ahal izateko.
 - ⇒ Ikuskaritzak gaikako edo urteroko txostenen bidez eragin dezake nagusiki .
 - ⇒ Txostenen eragina asko alda daiteke hainbat eragileren arabera.
 - ⇒ Txosten eragingarrienak, oro har, komunikazio-estrategia eta estaldura mediatiko on bat dutenak dira.

Ondorio da, adierazle objektiboak izatea zaila bada ere, ikuskaritzaren eragina hobeto kontrolatu behar dela, gutxietsi gabe.
- **Europako zenbait ikuskaritzen eguneratzeak:** North Rhine-Westphaliako (Alemania) Flandeseko eta Estoniako ikuskaritzek, ikastetxeen ebaluazioaren, kalitatearen kudeaketaren eta hainbat gairen inguruan, abian jartzen ari diren prozedura, proiektu edo ekimen berriei buruzko informazioa ematen dute.
- **Hurrengo ekitaldiak:**

DATA	LEKUA	JARDUERA ETA GAIA
Martxoaren 22a eta 23a	Luxembourg	Tailerra: Eragina iritzi publikoan
Irailaren 17tik 19ra	Eskozia – Glasgow	Tailerra: Eragina eskolaren hobekuntzan, hezkuntzaren kalitatean, ikasleen errendimenduan
Azaroaren 15a eta 16a	Serbia	Batzar orokorra: Urteko gai nagusiari, hau da, ikuskaritzaren eraginari, buruzko biltzarra..

Aurreko buletinak honako web-orri hauetan kontsulta daitezke:

<http://www.sici-inspectorates.eu/Contact-us/EC-Minutes>

3- SICI ELKARTEAREN MALTAKO JARDUNALDIARI BURUZKO INFORMAZIOA

Aurreko urrian, kanpoko ebaluazioari eta ikastetxeen autoebaluazioari buruzko biltzar bat egin zen Maltan. Europako hainbat ikuskaritzak beren ebaluazio-sistemen berri eman eta SICI elkartearen web-orrian jarri zituzten. Atal honetan aurkezpen horien edukia laburtzen dizuegu (Zeelanda Berria, Estonia, Irlanda eta Gales).

1- Balancing School Internal and External Evaluations: a NEW ZEALAND perspective

**Sandra Collins, Senior Education Evaluator,
Evaluation Services, Education Review Office**

Sail horrek 142 langile ditu, eta langileen % 80 ebaluatzaileak dira. Ebaluatzaile horiek 650etik 840ra ikastetxe ebaluatzen dituzte urtean, eta lehen haurtzaroko 1200dik 1460ra ebaluazio egiten dituzte. Urtean 20 txosten nazional argitaratzen dituzte. 1990an kontrol-auditoretzak egiten hasi ziren. 1997tik aurrera, ebaluazioa kontu-emateen azterketara bideratu zuten. Beranduago, 2002. urte aldera, ikastetxeen ebaluazioak gehitzen joan ziren, eta gaur egun ekitatearen eta bikaintasunaren inguruan dihardute.

Barne-ebaluazioei dagokienez, 1990. urte inguruan, ikastetxek euren programen azterketa egiten zuten. 1996an hasi ziren euren barne-ebaluazioa egiten. 1999an kalitateko ebaluazioa sartu zuten eta 2002. urtetik aurrera autoebaluazioa landu dute.

Aurkezpenetan azaltzen dute arreta goiztiarreko zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea, eta euren barne-ebaluazioen izaera, kalitatea prozesua eta eskaintzen dituzten ebidentziak ezagutu nahi dituztela, bai eta emaitza horien erabilera ere, ikasleen emaitzen eten gabeko hobekuntzarako

- **Effective School Evaluation**
*How to do and use
internal evaluation for improvement*



2- Internal and external evaluation system (ESTONIA)

Estoniari buruzko zenbait datu: ikasle-kopurua: 143.713, ikastetxe-kopurua: 535; irakasle-kopurua: 14.581. Estoniak 15 konderri eta 200 tokiko gobernutik gora. Urtarrilaren 1ean erreforma bat ezarri zuten, eta, ondorioz, eskualdeetako gobernuak euren jarduerari utziko diote, 79 bakarrik izango direlarik.

Hezkuntza eta Ikerketa Ministerioak antolatzen ditu ikuskapenak, eta aztertzen ditu ebaluazioen emaitzak. Eskolek euren barne-ebaluazioa egiten dute eta eskolen jabeek lagundu, ikuskatu, kudeatu eta bestelako zereginetan dihardute. Ikastetxeen barne-ebaluazioa derrigorrezkoa da 2006. urteaz geroztik. Lidergoa eta kudeaketa; kudeaketa-langileria; intereseko taldeekiko lankidetzak; baliabideen kudeaketa; irakatsi eta ikasteko prozesuan eta eskolaratzea; ikasle, langileri eta intereseko taldeekin loturiko taldeak ebaluatzen dira, eta erakundearen estatistikak.

Barne-ebaluazioaren ondorioz, ikuskaritzak gainbegiratzen duen garapen-plana prestatzen da.

Hezkuntza-erakundeak diseinatzen du barne-ebaluazioa gauzatzeko metodologia. Kudeatzaileak du aurrera eramateko ardura. Zuzendaritzak ezartzen du barne-ebaluazioaren prozedura.



3- Encouraging schools and inspectors to use self-evaluation

**Herman Franssen, Coordinator International Affairs, Inspector Primary Education
Dutch Inspectorate of Education (THE NETHERLANDS)**

Honako hauek dira ikuskaritzari loturiko funtsezko elementuak: kalitatearen bermea; hobekuntzaren sustapena; arauen egokitzapena; zuzendaritzaren erantzukizuna. Autoebaluazioari dagokionez, hainbat helburu dituzte, eta ikuskaritzak hobekuntza-prozesuen gidari gisa dihardu (hau etengabeko hobekuntza-kulturaren elementu garrantzitsu bat da hezkuntzaren hobekuntzarako). Eskola Kontseiluentzako baliabideak landu dituzte, euren eskolen kalitateari buruzko informazioa biltzeko.


Autoebaluazioen erabilerari buruzko Eskola Kontseiluekiko gidaritza: helburua autoebaluazioen erabilerara sustatzea eta autoebaluazioak ikuskaritzari eskaintzen dizkion aukerak aztertzea. Prozesu horrek hainbat fase ditu:

1. fasea: eskola Kontseiluekin elkartzen dira eta euren kalitate-sistemaz eta autoebaluazioaren erabileraz jarduten dute; autoebaluazioen helburuak (AE) ezartzen dituzte; eskola-hobekuntza suspertzen dute; haren egoera aztertzen dute, hainbar eredu daude (irakasleen hausnarketa sustatzea, auditoretzak eta bisitak egitea, etab.)

2^a fasea: AE (Zuzendaritza eta irakasleekiko bilera) egin duten eskolak ikuskatzen dira: zer moduz egin zenuen AE?, zein zen helburua?, zer ondorio atera dira?, zer egin zenuen emaitzekin?; ikuskatzaileen hausnarketak (nola erabil ditzakegu AEko emaitzak?, badago arrazoirik lortutako emaitzez ez fidatzeko?, ¿ondoriorik atera dezakegu?, nahikoa da ondorioak egiaztatzea edo ikuskapen osoa egin behar da?, ikuskapen-diseinua doitzen dute (eskola-behaketa eta dokumentu-azterketa gutxiago egitea)

Lehen Hezkuntzako eskola Kontseilu Nazionalak zin-zinez egiten du autoebaluazioen erabileraren alde eta Eskola Kontseiluen profesionaltasuna bultzatzen du (jardunbide egokien banaketa eta auditoreentzako prestakuntza-programa); nahiz eta ikuskaritza guztiak iritzi berekoak ez izan, uste dute beharrezkoa dela Ikuskaritzak EAEn fidagarritasunarekiko jarrera irekiagoa izatea; eskolak AEko emaitzak aurkeztea ikuskapenaren zati da orain.

Aurkezten dituzten ondorioei dagokienez, ez omen dute zerrenda hertsia bat erabiltzen AE bat fidagarria den ala ez jakiteko; AE ikuskaritza-esparruaren zati bat da, baina kontuan hartu behar da AEren emaitzak berriak direla. Ikuskaritzaren irizpen profesionala garrantzitsua da. Ez diete ikastetxeei AE eredurik ematen (Ikuskaritzaren gidaritzapeko AE bat sortzeko arriskua dago).



3- SICI ELKARTEAREN MALTAKO JARDUNALDIARI BURUZKO INFORMAZIOA (2)

4- Looking at Our School 2016 (LAOS). A Quality Framework for Primary and Post-Primary Schools.

Emer Egan, deputy chief inspector (IRELAND)

Zer da LAOS? LAOS ikastetxeentzako eta hezkuntza-sistemarentzako kalitate-esparrua da, eta bi dimentsio ditu (irakatsi eta ikasteko prozesua, eta lidergoa eta Kudeaketa). Ikuskaritzak garatu eta argitaratu eta, 2016a geroztik, abian dagoena.


Zergatik garatu esparru bat? Trinkotasuna emateko eta benetako irakaskuntza-, ikaskuntza-, lidergo- eta kudeaketa-praktikak partekatzeko; informatzeko eta ez uniformatzeko.

Gakoak: eskolak, ikaslea xede duten irakaskuntza dinamikorako erakundeak dira; ematen duten heziketaren kalitatearen ardura dute; ikaskuntza eta ikaslea modu holistikoan ikusten dira; irakaskuntzaren kalitateak garrantzi handia du emaitzetan, lidergoa ikaskuntzan duen eraginaren arabera da; lidergoa eta kudeaketa bereizezinak dira; barne- eta kanpo-ebaluazioa elkarren osagarriak dira hobekuntzarako.

LAOS programak dimentsio hauek ditu: ikaskuntza-irakaskuntza, eta lidergoa eta kudeaketa. Ikaskuntza-irakaskuntza alderdiak honako hauek neurtzen ditu: ikasleen emaitzak, irakaskuntza-esperientziak, irakasle bakoitzaren jarduera indibiduala eta irakasleen jarduera kolektiboa. Lidergo eta Kudeaketa alderdiak, berriz, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuko lidergoa, antolaketaren Kudeaketa, eskolaren garapeneko lidergoa eta lidergo-gaitasunaren garapena aztertzen ditu.

LAOS programa hainbat modutan erabil daiteke: liderrentzako hausnarketa, garapen eta laguntza gisa; profesionalak erakarri eta sustatzeko, garapen profesionalerako; gardentasunerako; kontuak emateko eta hobekuntzarako.

Looking at Our School 2016 What does it look like?



5- The link between self-evaluation and inspection (WALES)


Ikastetxeen autoebaluazioa (AE) da Galeseko ikuskaritzaren abiapuntua. Autoebaluaziotik abiatuta sortzen dira “galdera berriak”, hau da, eskolentzako ikuskapen garrantzitsuak egiten laguntzen dutenak. Ikuskaritzek eskola-ebaluazioen laginak hartu, testatu eta balioztatu egiten dituzte.

Hona hemen sortzen ari diren zenbait gai: talde jakin batzuen emaitza (ikasle-neskak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak); irakaskuntzako eta ikaskuntzako esperientziak (zein dira emaitza okerrenak lortzen dituzten irakaskuntzaren alderdirik garrantzitsuenak?); lidergoa eta kudeaketa (liderrek badute emaitzak hobetzeko ikuspegi, proposamen, gaitasun eta sistematik?).

Hona hemen ikuskaritzak 2017ko irailetik erabiltzen dituen hainbat ebidentzia: ikasgelako, baliabide-zentroko, lantokiko ikaskuntza, galdeketen emaitzak (ikasleei, irakasleei, gidariei, gurasoei, langileei); ikasleen lana; elkarrizketak; ikastetxeak eskaintzen dituen ikaskuntza-ibilbideak; funtsezko dokumentuak; emaitzei buruzko informazioa eta autoebaluazioa bera.


Sortzen diren beste galdera batzuk: liderrek eta kudeatzaileek zenbateraino ezagutzen dituzte eskolaren indarguneak eta ahulguneak?; zenbateko zehaztasunez jasotzen eta aztertzen dituzte datuak eta ebidentziak, eta ematen den irakaskuntzari eta eskola-emaitzei buruzko informazioa?; zenbateraino inpliketzen ditu eskolak bere eragileak, gurasoak eta ikasleak barne, eta zehazten ditu haien indarguneak eta ahulguneak?

2015-2016 ikasturteko txostenean, honako ondorio hauek jaso ziren: lider on batek hausnartu egiten du, modu egokian ebaluatzen du, hutsuneak identifikatzen ditu, arrakastaz hobetzeko lan egiten du, ez da burokratiko, modu adimentsuan erabili eta partekatzen ditu datuak, irakaskuntza eta ikaskuntzaren kalitatea du ardatz. Ikastetxe ahulago guztiek hutsune berak dituzte: liderrek ez zorroztasunez langileei, zorroztasunez, errendimenduari buruzko konturik eskatzen; AE prozesuak ez dira sendoak; irakasleengan gehiegi oinarritzen dira, ikasleen aurrerapena kontuan hartu gabe; irakaskuntza behar bezalakoa ez denean, lidergoa duten pertsonak, sarritan, ez dute argi zer egin behar den hobetzeko.



4- IKUSKARITZARENTZAKO EKAINEKO PRESTAKUNTZA JARDUERA


Buletin honen sarreran aipatu dugun bezala, Ikuskaritzako prestakuntzari buruzko Hiru Urteko Planean ezarritako helburuari jarraituz, 2018ko ekainaren 7an eta 8an, Bilboko Hezkuntza Ordezkaritzan egingo den jardueraren berri ematen dizuegu. Ekainaren 7an, Estonia, Irlanda eta Portugaleko ikuskaritzen emanaldiak entzuteko eta ikastetxeen kanpoko ebaluazio-sistema eta autoebaluazio-sistema ezagutzeko aukera izango dugu; ekainaren 8an, Londreseko Unibertsitateko Sandra Collins Zeelanda Berriko Ikuskaritzaren ordezkokoak parte hartuko du, eta baita Londreseko Unibertsitateko Melanie Ehren andreak ere, zeinek *Do inspection and evaluation lead to improvement?* (Ikuskapenak eta ebaluazioak hobekuntzara bideratzen gaituzte?) izenburua duen hitzaldia emango duen.



Ostiraleko jarduera-saioa amaitzeko hizlarien mahai ingurua izango dugu. Mahai inguru horretan jorratzea nahiko zenuketen gairen bat baduzue, arren bidal ezazue buletinaren amaieran agertzen den iradokizun-postontziaren helbidera..

Emanaldi guztiak ingelesez izango direnez, aldibereko itzulpen zerbitzua egongo da nahi duenarentzat.

5- KONTAKTUA



Iradokizunen postontzia :
huisg004@euskadi.eus

Hona hemen KANPO EKIMENEKO web-orria:

<http://www.euskadi.eus/informacion/dimension-europea-de-la-inspeccion-en-la-educacion/web01-a2hikus/es/>